

"40 Minutu Rock-erako sarrerak agortu dira eta jendea gogotsu dagoela ikusten dugu"



Durango • Urte biko parentesiaren ondoren, bueltan da 40 Minutu Rock. Landako Gunean egingo dute, zapatuan. Eszenatoki nagusian hamahiru talde arituko dira, goizetik gauera. Dena behar den moduan irten dadin, 400 bat boluntario ibiliko dira lanean eta txandak egiten. Ekimenaren antolatzaileak gustura daude ekimenak duen harrerezagaz. • 5



"Pelikula guztiak dira zinema aretoetan ikustekoak, baina 'Irati' oraindino gehiago"

Zinema • Asteburuan helduko da Hego Euskal Herriko zinema aretoetara Eneko Sagardoy aktore durangarra protagonista duen 'Irati'. Besteak beste, Durangoko Zugazan ikusi ahal izango da. Bestalde, artista durangarrak oraintsu amaitu du bera zuzentzen dabilen 'Betiko gaua' lan laburreko grabazioa. • 18



"87 urte pasatu eta gero, aita zelan hil zen jakitea eta bere arrastoak eskuratzea lortu dugu"

Zornotza • Aranzadik Patxi Jaka Bikandi gudari etxanotarraren gorpuzkiak topatu zituen, 2019an, Gamiz-Fikan. Orain, haren alaba Nekane Jakak eta birbiloba Enara Lauzirikak gorpuzkiak jaso dituzte. • 6

Errefuxiatu ukrainarrak, Zornotzan babes hartuta



izena emon




Durango Ikastetxea

BATXILERGOA
ATE IREKIAK

Martxoak 7 asteartea

18:00etan

946810058

www.maristak.com

Anbotokide kanpainaren barruan deskontu sare zabala sortu da tokiko komunikabideen eta komertzioen sinergiak baliatuz

Orain urtebete martxan ipinitako kanpaina amaitzeko, ANBOTOk ekitaldia antolatuko du azaroaren 10erako, Plateruenean

DURANGALDEA • J.D.

Tokiko komunikazioa eta tokiko komertzioak aspalditik dabilta indar txikiak batzen. ERAZen sasotik eta baita ANBOToren ibilbide osoan ere, Durangaldeko komertzio eta enpresak bidelagun izan dira. Anbotokide kanpainagaz, baina, beste urrats bat emateko aukera sortu da. Komertzio eta enpresa horiek ere Anbotokide izateko aukera dute. Horrez gainera, deskontu sarean parte hartzeko aukera dute. Komertzio bakoitzak erabakitzen du sare horretan Anbotokideei zein hobari eskaini. Hartara, beste aukera bat sortu da tokiko komunikazioa eta komertzioa batzeko. Hortz klinikak, bitxi-dendak, liburu-dendak, kopistegiak, museoak, optikak... Deskontu sarean deneriko zerbitzuak aurkitu daitezke.

Zozketetan parte hartu

Bestalde, Anbotokide izanda, urtean 30 euro ordainduta, hainbat lehiaketatan parte hartu daiteke.

Esate baterako, Athleticen VIP sarreraren zozketak erantzun ezin hobe izan du. Bazkariak, kultur ekitaldiak ikustera joateko sarrerak eta beste hainbat zozketa egin dira.

Babes handia

"Anbotokide izanda, ANBOToren eta tokiko euskarazko hedabideari babesa emateaz gainera, komunitate sendo bat eraiki dugu. Komunikazioa norantza bitan lantzen dugu. Komunitatea da gure altxorrik handiena", azaldu du Jone Guenetxea ANBOToko zuzendariak. Anbotokide kanpaina martxan ipini dugunetik, hainbat pertsonak eta eragilek bat egin dute kanpainagaz. "Pandemia sasoiaren, tokiko hedabideon garrantzia azaleratu zen. Jendeak informazio sinesgarria eta gertukoia ezagutu gura zuen. Eta, alde horretatik, ahalegin handia egin genuen gure komunitatea informatuta egoteko. Gure komunitateaz guk geuk idatzi eta iritzia emateko aukera

ematen duten hedabideak izatea garrantzitsua da fake newsen eta desinformazioaren sasoi honetan", gaineratu du Guenetxeak.

"Anbotokide izanda, komunitate sendo bat eraiki dugu. Komunikazioa bi norantzatan lantzen dugu"

22. urteurrena

ANBOToren 22. urteurrenerako ekitaldia prestatzeari ekin diote. Azaroaren 10erako ipini dute hitzordua, Plateruenean. "ANBOToren 20. urteurrenean ekitaldi bat antolatzeko asmoa genuen, baina ez zen posible izan. Oraindino ere pandemiaren inguruko murrizketak zeuden eta Plateruena itxita zegoen. Guretzat Durangoko Antzokia da gune naturala gure ospakizunerako. Eta aurten bai, aurten aukera ikusi dugu gure komunitateagaz ekitaldi xume baina berezia prestatzeko", adierazi du Guenetxeak.



Anbotokide txartelagaz Durangaldeko hainbat komertziotan aplikatu daitezke deskontuak.

Zozketetako irabazleak



AMAIA GARCÍA

Athleticeko sarreraren irabazlea

Zelan San Mameseko partiduan?

Etxean zozketa eginda, azkenean senarraz joan nintzen eta esperientzia ezin hobe izan zen. Giroa, pintxoak, pastelak, arreta... Gainera 4-1 irabazi genuen Cadi-zen kontra.

Zergaitik egin zara Anbotokide?

Urteak nenbilen etxe ondoko kioskoan astekaria jasotzen. Gero whatsapp taldera batu nintzen, eta gero Anbotokide egin nintzen abenduan. Durangaldeko albisteen berri izatea gustatzen zait, eta euskaraz, izan behar duen moduan. Gauza batzuk ez ditut ulertzen, baina hiztegia hartzen dut eta kito. Euskara praktikatzeko balio dit.



MAITE ABENDIBAR

Uxarteko lehiaketako irabazlea

Noiztik zara Anbotokide? Zuretzat zer da Anbotokide izatea?

Ezingo nuke esan zehatz-mehatz noiztik, aspaldi da Anbotokide egin nintzela. Durangaldeko aldizkaria izanik, bertako albisteak euskaraz jasotzea garrantzitsua da niretzat; era berean, euskara sustatu eta bultzatzen dugula uste dugulako.

Uxarteko lehiaketan lagun birentzako afora irabazi duzu. Zelan hartu zenuen albistea? Joateko gogoz zaude?

Pozik jaso nuen albistea. Lehenengo aldia da zerbait tokatzen zaidana. Orain data aukeratu behar tokatutakoaz gozatzeko.



ENERITZ URRUTIBEASKOA

Barbaroko sarreraren irabazlea

Urteko azken bertso saioko sarreraren zozketa irabazi zenuen.

Guretzat urteroko zita da. Egun bitan agortu ziren sarrerak eta, berandu ibili ginenez, ezin izan genituen erosi. Baina Anbotokide lehiaketan parte hartu genuen eta irabazterakoan poz itzela hartu genuen. Bertso saiora joateko aukera izan genuen eta giro ederra egon zen.

Noiztik zarete Anbotokide?

Orain dela bost bat urte egin ginen Anbotokide. Hurbiltasunaz gainera, euskarazko komunikabideetan sinesten dugu eta uste dugu herriarentzat eredu bat dela eta onuragarria dela. Proiektu hori bultzatzeko egin ginen Anbotokide.



IGONE AMESTI

Hertzainaken sarreraren

Hertzainak BECen eman zuten kontzertuko sarrerak eskuratu zenituen. Zer moduz?

Hertzainaken kontzerturako zozketa parte hartzen nuen lehenengoa izan zen; ez nuen espero zorteko izatea, eta hara! Ezin izan nintzenen joan, sarrerak ahizpa bati oparitu nizkion! Berak gozatu zuen nire partez.

Beste lehiaketa batzuetan ere parte hartzen duzu?

Bai, interesatzen zaizkidan zozketetan.

Noiztik zara Anbotokide? Zergaitik?

Abenduan egin nintzen Anbotokide. Euskaltzalea naiz eta eskualdeko euskal hedabide honi nire ekarpen txikia egiteko modua da Anbotokide izatea.

Deskontu sareko komertzioak



NAIA
GORROÑO

Dentista

"Durangoko zerbitzuak erabiltzea eta bertako komertzioetan kontsumitzea garrantzitsua da"

Naia Gorroño dentista ANBOToren deskontu sareko kidea da. Iazko ekainean egitasmoa-gaz bat egin zuen.

Zergaitik erabaki duzu ANBOToren deskontu sarean parte hartzea?

Anbotokide egin naiz uste dudalako inguruko zerbitzu eta komertzioek elkar laguntzea eta horiek ezagutaraztea garrantzitsua dela.

Zergaitik da garrantzitsua tokiko sinergiak bultzatzea?

Durango zerbitzuak erabiltzea eta bertako komertzioetan kontsumitzea oso garrantzitsua iruditzen zait, herrian denarik daukagu eta, zorionez.



MAIDER LLANOS eta
LOURDES ARRIZABALAGA

Landako Optika

"Deskontu sarea elkar laguntzeko modu bat da"

Landako Optika ekimena martxan ipini zenetik deskontu sarean dago.

Deskontu sareko heteranoak zarete. Berehala egin zineten sareko kide.

Orain dela urte batzuk proposamena heldu zitzaigunean, berehala eman genuen baiezkua. ANBOTO Durangaldeko tokiko euskarazko hedabide bakarra da eta gure ekarpena egin gura genuen. Elkarri laguntzeko modu bat da.

Jendea etortzen da txartelagaz?

Bai, jendea etortzen da deskontua aplikatzeko. Azken hilabeteetan igartzen dugu txartel berriak banatu direla eta erakutsi eginen digutela.



BEGO
GARCÍA

Iurreta Kopistegia

"Jendea geroago eta gehiago etortzen da txartelagaz"

Iurreta Kopistegiak aspaldi egin zuen bat Anbotokide ekimenagaz.

Aspalditik dituzue deskontuak martxan. Jendea txartelagaz etortzen da?

Bai, geroago eta gehiago. Jendeak galdetu ere egiten du eta ANBOTOra bidaltzen ditugu. Inguruko herrietako jendea ere etortzen da.

Komertzioa bultzatzeko modu bat da. Zein da zuen arazo nagusia?

Interneteko salmentek kalte handia egiten digute. Gu paketeak jasotzeko puntu bat gara eta jende askok Internetez erosten ditu dendan bertan saltzen ditugun liburuak. Pena handia ematen du, baina horrela da.



AINHOA
PINO

Gautu

"Dendariontzat ezagutzera emateko espazioak oso garrantzitsuak dira"

Gautu koltxoi denda orain dela gutxi sartu da Anbotokide sarean.

Zelan erabaki duzue deskontu sareko kide izatea?

Oso ideia ona iruditu zaigu, horrela komertziook abantaila batzuk eskaintzeko aukera daukagulako. Gainera, horrela, komertzioa publizitatu egiten da tokiko hedabide batean eta bezeroak ere irabazi egiten du horregaz.

Tokiko dendak ezagutaraztea gatxa da.

Tokiko merkatariok desabantaila asko dugu azalera handiko merkataritzaguneen aurrean. Horregaitik, ezagutzera emateko espazioak oso garrantzitsuak dira dendariontzat.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh.
48215, Iurreta

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Udalak ikerketa bat hasi du arkeologian eta geologian adituak diren profesionalekin, herriko eremu esanguratsu biri buruzko historian arakatzeko. Batetik, Tabirako elizaren inguruko lurretan egingo dute ikerketa bat, bertan Durango herriaren jatorrizko arrasto arkeologikorik ba ote den jakiteko. Ikerketaren bigarren ildoan Mikeldiko idoloa agertu zen eremuan egingo dute, garai bateko San Bizente ermitaren inguruar buruzko informazioa eskuratzeko asmoz. Adituek azaldu dute Mikeldiko idoloa testuinguruan ipini ahal izateko arrastoak topatu gura dituztela, kontuan hartuta Erdi Aroan Durango eta Bilbo lotzen zituen bidea bertatik igarotzen zela. Ikerketa taldean Aranzadi Zientzia Elkarteko Antxoka Martínez doktoreak, Espainiako Historiaren Errege Akademiako Luis Valdés doktoreak eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Javier Valles teknikariak parte hartuko dute, 3D ikerketetan aditu diren teknikariek batera.

Ikerketok georadar baten laguntzagaz egingo dituzte. Hau da, uhin elektromagnetikoekin lan egiten duen tresna batez. Gailu horri eskerrak, lurpean egon daitezkeen geruzak eta berrietan egon daitezkeen etenak

Tabiran ikerketa arkeologikoa egingo dute Durango herriaren jatorria ezagutzeko

Mikeldiko idoloa agertu zen eremuan ere egingo dituzte zundaketak, oraindino eraiki barik dagoen lur arloan



Udal agintariek eta arkeologian adituek egunean aurkeztu zuten ikerketa.

identifikatuko dituzte. Ikerketa martxoaren amaiera aldera egitea aurreikusi dute. Horretarako, baina, ezinbestekoa izango da eguraldia lagun izatea. Ikerketa egin aurreko egunetan eta ikerketa

egunetan zehar, euririk ez egitea izango da gakoa. Udal agintariek iraganari loturiko "zalantzak argitu" gura dituzte, etorkizunari "ezagutza gehiagorik begiratu ahal izateko".



Joan zen astean hasi ziren auzo-etxea egiten.

Errotaritxuenan auzo-etxea eraikitze lanak, martxan

340.304 euroko aurrekontuagaz, lanak sei hilabete barru amaitzea aurreikusten du Durango Udalak

DURANGO • J.D.

Errotaritxuena auzoko 12. eta 13. zenbakietan egingo dute zentro zibiko berria, orain arte udal brigadaren biltegi lez erabiltzen zen lokalean. Eremuak 198,34 metro koadro ditu. Otamotzena parkeko aldetik sarrera bi izango ditu eta beste aldetik beste bat. Guneak barra bat, mahaiak, sukaldea,

komunak eta erabilera anitzeko gela izango ditu. Errotaritxuena izango da herriko lehenengo auzo-etxea, baina udalak beste hainbat proiektu du esku artean. Juan Itziar eta Muruetatorre auzotarako zentro zibikoak laster aterako dituzte lizitaziora. San Faustokoaren kasuan, proiektua eginda dago jada.

Gobernu taldeak dio "monitoreek gidaturiko aktibitate berriak" egongo direla martxoan Landako kiroldegietan

Durango Kirolak-eko Asier Bikandi zuzendariaren berbetan, enpresa kontratatuek "denbora behar dute zerbitzu berriak eskaintzeko". Kirol eskaintza handitu egingo dela iragarri du



Amaia Palaciok herritarren aurrean aurkeztu zuen mozioa.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango kirol monitoren lan gatazka asteon egindako osoko bilkurara ailegatu da. Amaia Palacio durangarrak adierazpen bat zuzendu die ordezkari politikoei, kiroldegiko erabiltzaile talde baten izenean. Palaciok langileen auzia eta zerbitzuak "beregala" konpontzera deitu zituen udal ordezkariak. Orain dela aste eta erdi,

Landako kiroldegietan azpikontraturik dauden monitoreek greba mugagabea hasi zuten, zerbitzuan "murrizketak" daudela salatzen. Euren esanetan, izurria izan baino lehenago "140,5 kirol ordu" eskaintzen zituzten gidaturiko aktibitateetan; izurriaren ondoren, ostera, "95". Eztabaidak beste bira bat izan zuen Durango Kirolak entitateko Asier Bikandi zuzendariak azalpenak emanikoan. Bikandiren esanetan, izurria izan baino lehenago, 2019-2020 ikasturtean, 19.157 kirol ordu eman ziren Landako kiroldegietan. Gaur egun indarrean dagoen lizitazioak, baina, handitu egingo du kopuru hori, 2023-2024 ikasturte honetan

24.944 kirol ordu ematea aurreikusten dutelako. "Kontraturiko enpresa berriek denbora behar dute zerbitzu berriak eskaintzeko. Agiriek argi diote enpresak aktibitate berriak sortzera behar-tuta daudela, betiere herritarren eskarien eta beharrezan araberak", adierazi du Bikandik. Eta kontraturiko "ordu kopuru guztiak agortzea" gura duela gaineratu du. Gobernu taldeko kideek iragarri dute, "monitoreek gidaturiko kirol aktibitate gehiago" egongo dela martxoan. "Epe laburrean dena konpontzea" gura dutela esan du EH Bilduko Iker Urkiza zinegotziak, "bai erabiltzaileen bai langileen onerako".

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2023ko otsailaren 24a
21. urtea - 926. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Hiru urte hauek geldialdi gogorra izan dira; indarberrituta eta gogotsu gatoz”

400 bat boluntarioren lanari eskerrak bueltan da 40 Minutu Rock Jaialdia, gustu guztietarako musika eskaintzagaz



DURANGO • JOSEBA DERTEANO
Pandemiak beharturiko parentesiaren ondoren, 40 Minutu Rock jaialdia bueltatuko da zapatu honetan, Durango Landako Gunean. Sarrera guztiak agortuta daude. Dena behar ben moduan irten dadin lanean arituko

dira Anes Baños Madariaga, Aitziber Areitio Iriondo, Aitor González Gutiérrez eta Andrea Aragón Acedo.

Gogotsu zaudete?

Aitziber Areitio: Bai, hiru urte hauek geldialdi gogorra izan dira denon-

tzat. Indarberrituta eta gogotsu gatoz. Ez da ahaztu behar zergaitik antolatzen den jaialdi hau. Ez da albiste ona horrelako jaialdi bat antolatu beharra, baina presoen eskubideen alde lanean jarraituko dugu.

Zer islatu gura duzue 'Bagatoz, badatoz' aurtengo leloagaz?

A.Areitio: Denok dakigun moduan, azkenaldian presoen hurbilketa asko egon da eta horri egiten dio erreferentzia 'Badatoz' berbak. 'Bagatoz'-egaz euren eskubideak defendatzen jarraitzeko asmoa dugula esan gura dugu.

Anes Baños: Azken hurbilketak oso berri ona dira eta egoera asko aldatu da, baina euren eskubideen alde lanean jarraitu behar dugu, euskal presoei bermatzen ez zaizkien eskubide asko dagoelako. Esaterako, azken asteetan ikusi da hirugarren gradu asko atzeratu dela. Beraz, lanean jarraitu behar dugu.

Sarrera guztiak agortuta egoteak ilusio berezia eragiten du?

A.Areitio: Azkenaldiko ia jaialdi denetan agortu dira sarrera guztiak. Egia esan, hasieran duda neukan agortuko ziren ala ez, ze beste jaialdi batzuetan pasatu izan da denak ez agortzea pandemia oste honetan, baina, tira, jendea gogotsu dagoela ikusten dugu.

Zenbat boluntario zabilzate lanean jaialdia aurrera eramateko?

Andrea Aragón: 400 bat datoz txandak egitera. Gero, 30 bat laguneko beste lantalde bat hilabete askoan ibili da lanean dena antolatzen. Euren denen lanik eta laguntzarik barik ezinezkoa litzateke jaialdia

antolatzea, eta oso esker oneko gaudete.

Makina bat musika talde etorriko da aurtun ere. Zer irizpide hartzen dituzue kontuan taldeak aukeratzeko?

Aitor González: Estilo aniztasuna egotea, emakumeen eta euskararen presentzia bermatzea, Durangaldeko taldeei bultzada ematea... Aurtun karpa txikian egongo diren musika jartzailerik gehienak eskualdekoak dira: Pary & Tiza, KSK, Azken Erromantikoak, Lieta-ko esan diglutun eta DJ Reimi.

Azken hurbilketak oso berri ona dira, baina lanean jarraitu behar dugu euskal presoei bermatzen ez zaizkien eskubide asko dagoelako

Musikazale lez, zein talde ikusteak egiten dizue ilusio berezia?

A.Areitio: Niri egun guztiko giroa gustatzen zait, batez ere. Baina talde batzuk aukeratzekotan... adibidez, Duplak jendea kontzertuan asko barneratze gaitasuna du. Giro itzela sortzen dute. Lukiek eta Ginger taldeak entzuteko ere gogo handia dut. Ez ditut askotan entzun, eta hazten dabilzan talde berri bi dira.

A.B: Nik hiru talderen artean daukat banatuta bihotza: Perlata, Ginger eta Lukiek.

A.Aragon: Nik Merina Gris ikusteko gogoia dut.

A.G: Unidad Alavesa ikusteko gogoz nago ni.

Kamareroen Asanblada sortu dute, ostalaritzako "abusuei" aurre egiteko

"Soldata izoztuak", "atsedena ez errespetatzea", "beltzean lan egitea" edo "lan egutegiak azken orduan jakitea" dira Laneko Autodefentsa Sareak zerrendaturiko "abusuak"

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Laneko Autodefentsa Sareak (LAS) Kamareroen Asanblada sortu du zerbitzarien lan baldintzen alde borrokatzeko. Diotenez, "babe-sik bako sektorea da ostalaritza, antolakuntza kolektiborako eta lan baldintzen defentsarako baliabiderik bakoa". Horrez gainera, ostalaritzan hainbat "abuse" egoten dela diote: "Soldata izoztuak", zerbitzarien "atsedena ez errespetatzea", "beltzean lan egitea" edo "ordu estrak lanordu arruntak lez kobratzea", adibidez. Kamareroen Asanbladak las.durangaldea@gmail.com helbidea zabaldu du lanpostuetan "gehiegikeriaren bat" jasan dutenen eskura.



Kamareroen Asanbladako kideak.

Aurtun, Durango eta lurretako denda, ostalaritza eta zerbitzuak espazio berean elkartuko dira, guztira 40 negozio baino gehiago batuz, modu batera edo bestera parte hartzen dutelarik.

Dagoeneko ezaguna den outlet guneari (Aukera Azoka) gune gastronomikoa eta tailerrak egiteko espazioa gehituko zaizkio.

Merkataritza-gunean, era guztietako 17 saltokik azken denboraldietako produktuak merkeago eskainiko dituzte: haurrentzako eta helduentzako moda, kirol-arropa, oinetakoak, optika, dekorazioa...

Gune gastronomikoa 6 postu izango ditu: kafea, gozokiak, pintxoak, tortillak, enpanadillak, izozkiak... Gune horretan hainbat tailer egongo dira asteburu osoan: dastatzeak, showcooking-a... Bertan zuzeneko musika izango da.

Era berean, adin guztietarako tailerrak eta hitzaldiak egingo dira: makrame tailerra, haurrentzako ipuin kontalaria, argazki tailerra, bidaiak...

Sarrera doakoa izango da eta erosketak egiten dituztenek bi orduan doan izango dute Landako Guneke parkina. Gainera, Udalak gaitutako Txiki Parkera zuzenean sartzeko aukera izango da.

Dendak Baik ekitaldi berri hau antolatu du, Aukera Azokaren aurreko kontzeptua aldatzeko asmoz. Ekitaldi aberatsago bat sortuz, zeinetan sektore guztiek lekua duten. Espazioaren izena eta dekorazioa aldatuta, dendek, ostalariek eta zerbitzuak batera parte hartuko dute ekitaldian, eta bisitariak, erosketa-plana ez ezik, eguna udalerrian igarotzea sustatzen duen esperientzia osoa eskainiko zaie. Beraz, Dendak Baik elkarrekin aurtun ere eskualdeko eta inguruko jende mordoak erakartzea espero du, aurreko urteetan bezala. Orduan, 20.000 bisitari bildu ziren.

DENDAK BAI FEST

Martxoak 3, 4, 5
Durango 2023 - Landako Gunea

Outlet-a, gastronomia, tailerrak... eta askoz gehiago

Ostirala: 10:00 - 14:00 / 17:00 - 21:00
Larunbata: 10:00 - 21:00
Igandea: 11:00 - 14:00

Egitarai osoa hemen:

DURANGO
Udalak - Ayuntamiento

URRUTIA
URRUTIA

Dendak Bai
durango

688 738 102

Dendak Bai

www.dendakbai.eus



Deshobiraketan aitaren zein arrasto agertu ziren?

E.L.P.: Gamiz-Fikan egindako desobiraketan birraititaren hezurdura osoa agertu zen, den-dena. Berak zeramatzen gailuen artean, koilara bat, Eusko Gudarosteko ikurra duen hebilla, kremlera bat, ispilu txiki bat eta abarka bat agertu ziren.

N.J.E.: Orain arte ez dut aitaren ezer eduki. Ezta argazki bat ere. Orain, zelan hil zen jakin ahal izan dut, eta badut berea izandako objekturen bat. Pozik nago. Eta berriro diot, ez dagoela dirurik Fikako familia horrek egindakoa eskertzeko.

Aita zelan hil zen jakin ahal izan dut, eta badut berea izandako objekturen bat. Pozik nago. Ez dago dirurik Fikako familia horrek egindakoa eskertzeko

“87 urte pasatu eta gero, aita zelan hil zen jakitea eta bere arrastoak berreskuratzea lortu dut”

Aranzadi Zientzia Elkarteak Patxi Jaka Bikandi gudari etxanotarraren gorpuzkiak topatu zituen, 2019an, Gamiz-Fikan. Orain, haren alaba Nekane Jakak eta birbiloba Enara Lauzirikak gorpuzkiak jaso dituzte, Gogoraren eskutik

ZORNOTZA • E.H.

Nekane Jaka Etxebarriak (Etxano, 1936) eta haren familiak galdera bakar bat izan dute azken 87 urteotan: "Non dago aita?". Patxi Jaka Bikandi tropa frankisten kontra borrokatu zen Eusko Gudarosteagaz. Zabalbide batailloiko kide izan zen eta familiak haren arrastoa galduta izan du zortzi hamarkadatan. Orain, Aranzadi Zientzia Elkartearen lanari eta Gogoraren bitartekaritzari eskerrak, Nekane Jakak bere aitaren gorpuzkiak berreskuratu ditu. Patxi Jakaren arrastoak Gamiz-Fikan topatu dituzte, hango familia baten lekukotasunari eskerrak. Zornotzan batu gara Patxi Jakaren alaba Nekanegaz eta haren birbiloba Enara Lauzirika Pinagagaz (Zornotza, 1993).

87 urte pasatu eta gero agertu da aita. Zelan zaude?

Nekane Jaka Etxebarria: Pozik nago, pozik eta harro. Orain arte ez dut aitarik izan. Ni jaioberria nintzela desagertu zen aita, hamaika hilabete nituela. Eta, jakina, ez dut haren akordurik.

Etxean izan duzue aitari buruzko berririk? Desagertu berritan, zer esaten zizuen amak?

N.J.E.: Ezertxo ere ez. “Aitarik ez daukazue eta kito”, esaten zigun.

Aitarena ezkutuan lez izan zuen familiak. Haren argazkirik ere ez genuen.

Zu, Enara, Patxi Jakaren birbilobazara. Zelan hartu duzu aurkikuntzaren albiste?

Enara Lauzirika Pinaga: Albiste gazi-gozoa izan da. Pozgarria, hainbeste urteren ostean badakigulako gure birraitita non hil zen, non egon den urte hauetan guztietan,

Lander Mella Fikako herritarra da aurkikuntzaren beste potaonistetariko bat. Bere lekukotasunari eskerrak egin da aurkikuntza

eta zer gertatu zitzaion. Baina aldi berean gazia ere bai, jendea falta delako. Amama-eta lau ahizpa ziren. Bera da bizirik dagoen alaba bakarra. Albiste jaso baino hamar bat egun lehenago hil zen bere ahizpetariko bat. Hamar egunengaitik bere aita non zegoen ez zekiela hil zen amamaren ahizpetariko bat.

Urte luzez ibili zarete aita bilatzen. Zelakoak izan dira bilaketa lanak?

N.J.E.: Batera eta bestera ibili arren, ez batetik ez bestetik ez dugu topatu izan. Bilaketa erdi utzita izan dugu.

E.L.P.: Bai, batean zein bestean galdetu arren, ez genuen birraitita hilda zegoen erregistrorik topatzen. Desagertu izanaren informazioa baino ez genuen. Gerora, Internetek eskaintzen dituen tresnei esker jakin dugu Zabalbide batailloiko kidea zela. Nominak topatu ditugu, bere sinadura eta guzti. 2017an, Gogorak DNA bankua zabaldu zuen. Amamaren ahizpetariko batek, Terek, lagina eman zuen. Gero, 2019an, birraititaren gorpuzkiak topatu zituzten Fikan, baina DNA ikerketak ez zuen baieztatu arrastoak berarenak zirela. Iaz, bai. Beste prozedura batez errepikatu zuten DNA proba, eta baieztatu ziguten baietz, gorpuzkiak birraititarenak zirela.

Aurkikuntzaren zati handi bat Fikako familia baten lekukotasunari eskerrak egin da.

E.L.P.: Bai, Lander Mella fikarra da aurkikuntza honetako beste protagonista bat. Landerrek berak kontatzen duenez, bere aitak esaten zion gerran hildakoen gorpuzkiak baserriko lu-

rretan zeudela. Beti zebilela hori burutik kendu ezinda. Aitita hildakoa, Landerrek informazio horregaz zerbait egitea pentsatu zuen. Aranzadigaz hartu-emanetan ipini eta hauek ikerketa hasi zuten. Lekukotasun hari esker hiru milizianoen gorpuzkiak topatu dituzte; tartean, birraititarena.

N.J.E.: Albiste jakindakoa, ez nekien barrezka ala zarataka hasi. Emozionatuta nengo. Ez dago dirurik Fikako familia horrek egindako lana ordaintzeko.



2019an, hiru milizianoen arrastoak topatu zituzten Gamiz-Fikan. GOGORA

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hizordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

Nai Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

prōktós.clinic

Uzki eta zoru-pelbikoko
patologiaren tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPIEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Podologia**
PSE: 214/06

Abinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaitzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

“Ukrainako gerraz ez ahaztea eskatu gura dugu, oraindino laguntza behar dugulako, laguntza emozionala”

Yevgenia Tokar ukrainarra eta bere semea Zornotzan errefuxiatuta bizi dira abuztutik. Mikel Mugarza eta Tetiana Akimova zornotzarren etxean hartu dute babes. Orain urtebete egin zuen eztanda Ukrainako gerrak, gaurko egunez



Mikel Mugarza, Tetiana Akimova eta Yevgenia Tokar.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Gerra “epe laburreko zerbait” izango zela uste zuen Yevgenia Tokar ukrainarrak (Kiev, 1983), “aste batzuetan konponduko zen zerbait”. Baina bonbardaketak etxe atarira heldu zitzaizkionean ikusi zuen gatazka ez zela berehalakoan konponduko: “Ni bizi nintzen lekutik etxebizitza bitara jausi ziren bonbak. Hildakoak egon ziren. Nire etxeko leihoak lehertu egin ziren uhin hedakorren eraginez”, kon-

tatu du. Orduan hartu zuen Ukrainako hiriburutik irteteko erabakia. 2022ko abuztua zen. Harrezkero, Yevgenia Tokar Mikel Mugarza eta Tetiana Akimova zornotzarren etxean bizi da babes hartuta. Hamabost urteko semea ere beragaz dago. “Yevgeniak eta biok Ukrainan ezagutu genuen elkar, unibertsitateko lehenengo egunean, Aire-garraio Teknologien Ingeniaritza ikasketak hasi genituenean. Ondo gogoan dut egun hura. 2000ko

irailaren 1a zen”, dio Akimova zornotzarrek irribarre batez. Ikas-kide lez hasitako hartu-eman hura lagun-minen arteko hartu-eman izatera igaro zen denboragaz, eta horri eskerrak ama-seme ukrainarrek lagunak eskaintzen duten epeltasunean hartu dute babes.

“Egokitzapen hau gatzagoa izaten ari da semearentzat. Dena bat-batean ailegatu zaio. Dena berregin behar izan du kolpetik,” aitortu du Tokarrek. “Zornotzako

eskolara joateaz gainera, Bilbon dabil musika ikasketak egiten. Egunen batean ikasketak Ukrainan amaitzea gura genuke. Dena dela, oraingoz ez dirudi horrela izango denik”, gaineratu du. Ama-semeek bidean aurrera egin gura dute apurka-apurka, baina, aldi berean, adi-adi begiratzen diote Ukrainan gertatzen dabilenari. “Egunero-egunero berba egiten dut familiako kideekin, lagunekin. Argindar mozketak ohikoak dira han, baina hornidura indarrean dagoenean, hango kideek gugaz komunikatzeko modua topatzen dute”, azaldu du. Tokarrek Ukrainan ditu gurasoak. Baita senarra ere, Martzial Legea dela-eta 18tik 60 urtera bitarteko gizonezkoek debekatuta dutelako herrialdetik irtetea. “Jendea gerra egoerara ohitzen da, baina horrek ez du esan gura egoerak onera egin duenik. Zu edozertara ohitu zaitezke, baina egoerak ez du zertan ona izan. Berbak falta zaizkit egoera hau azaltzeko. Eta ez gaztelaniazko berbak bakarrik, ukrainierazko berbak ere faltan ditut hau azaltzeko”, azpimarratu du. Alde horretatik, Tetiana Akimovak honako gogoeta hau partekatu du: “Urte honetan zehar, jende asko hurbildu zait babes ematera, zelan nagoen galdetzer. Benetan eskertzen dugu babes hori. Baina orain badirudi jendea gerraz ahaztu dela, zelanbait esatearren. Ulergarria ere bada, jendeak bere bizimodua egiten duelako eta ez duelako gerra bat etxean. Gerraz ez ahaztea eskatu

gura dugu, guretzat ez da amaitu eta. Oraindino laguntza behar dugu, laguntza emozionala”.

5 milioi errefuxiatu

Ukrainako ekialdean 2014tik ere gerra giroa bazegoen arren, orain urtebete egin zuen eztanda denak, gaurko egunez, Errusiak Ukrainaren kontrako “operazio militar berezia” hasi eta herrialdea inbaditu zuenean. Harrezkero, gerrak eta krudelkeriak ez dute etenik izan. Milioika ukrai-

Ni bizi nintzen lekutik etxebizitza bitara jausi ziren bonbak. Hildakoak egon ziren eta gure etxeko leihoak txikituta geratu ziren

narrek herrialdetik ihes egin behar izan dute babes bila. Nazio Batuen Erakundeak hile honen hasieran emandako datuen arabera, gutxienez 5 milioi ukrainarrek hartu dute aterpe Europako herrialdeetan. Durangaldean ere igarri dira elkartasun keinuak. Mikel Mugarza eta Tetiana Akimova zornotzarrek osaturiko bikotea da horren adibide. Gerrak eztanda egin zuenean, bikotea Poloniaren eta Ukrainaren arteko mugara bidaiatu zuen, errefuxiatuak ekartzera. Familia pare bat ibilgailuetan sartu eta Espainiarako bidean ipini zituzten. Gerora, haien etxea Ukrainako hainbat familiaren aterpe izan da. Akimovaren urrutiko senideak hartu izan dituzte pare bat alditan. Gaur egun, Yevgenia Tokar eta bere semea dituzte harreran.

Iurretako Maiztegi eskolako kontsumo elektrikoaren %36 eguzki panelek estaliko dute

Eraikinaren estalkia ordezkatzeko lanen barruan ipini ditu Iurretako Udalak eguzki panelek

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Maiztegi herri eskolan 460 WP-ko 54 eguzki panel instalatu dituzte, zentroari elektrizitate kontsumoaren autohornidura emateko. Eraikinaren estalkia ordezkatzeko lanen barruan ipini diren panel fotovoltaikoekin eskolaren kontsumo elektrikoaren %36 estaliko da. Urrian hasi zituzten lanak eta udalak 227.000 euroko inbertsioa egin du. Amaitzeko, ura biltzeko erretanak ipintzea baino ez da geratzen.



54 eguzki panel instalatu dituzte ikastetxeko teilatuan.

Erramun Osa izango da Garaiko EAJren alkategaia

Erronkari heltzeko “ilusio eta gogo handia” duela dio. Alkate irteten bada, “agintaldian aritu den eran” segituko du

GARAI • EKAITZ HERRERA

Erramun Osa, legegintzaldi honetan Garaiko alkatea izan dena, atzera ere aurkeztuko da udal hauteskundeetara. Osak “herri-tarrek daukan konpromisoa” berri gura du, eta gaineratu du “ilusio eta gogo handiagaz” helduko diola erronkari. Alkate irtetera, “agintaldi honetan aritu den eran” jarraituko du, liberaziorik hartu barik eta “herriarren partaidetza” sustatuta. “Herri bideen zaharbe-

rritzea”, “hirigintza plana” edo “bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuak garatzea” ipini ditu ipar modura.



Bizkaiko Foru Aldundiak 120 plaza izango dituen nagusien egoitza bat eraikiko du Abadiñon

Nagusien egoitzak 17 milioi eurotik gorako inbertsioa beharko du eta 2027rako amaitzeko asmoa dute

ABADIÑO • JOSEBA DERTEANO

Abadiñoko Udalak ohar batean informatu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak nagusien egoitza bat eraikiko du Abadiñon, mendekotasuna duten adinekoentzat. Zelaian egingo dute, Gorabide egoitzarako bidean dagoen lursail batean (albisteko argazkian, ezkerrean ikusten den eremuan), Kanterriketa legez ezagutzen den inguruan. Egoitza 2027rako amaitzea itxaroten dute eta 17 milioi eurotik gorako inbertsioa eska-

tuko du. Azpiegitura berria 120 plaza egongo dira bizikidetzaren unitateetan banatuta, eta unitate bakoitzean 25 lagun biziko dira gehienez.

Abadiñoko alkate Mikel Garaizabalek azpimarratu du adinekoen onura euren "lehentasuna" dela: "Horregaitik, buru-belarri lan egiten dugu arloko eskumenak dauzkaten administrazioekin haien bizi kalitatea hobetzeko. Oso pozik gaude udalerrian azpiegitura berria edukiko dugulako".



Mikel Garaizabal, Elixabete Etxanobe, Sergio Murillo eta Javi Crespo, egoitza egingo duten tokian.

Soraluzeko Carlos de Cos argazkilariak irabazi du San Blasetako argazki lehiaketa

Herriko argazkilarien artean, Monika Romerok irabazi du herriko argazkirik onenaren saria

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Soraluzeko Carlos de Cosen irabazi du San Blasetako argazki lehiaketa. Argazkilariak 400 euroko saria eskuratu du. Bigarren saria, 250 euro, Ana María Oveja elorriarrentzat izan da, eta herriko argazkilarien artean Monika Romerok irabazi du argazkirik onenaren saria.

Epaimahaiak aukeraturiko obrarik onenak martxoaren 4ra arte egongo direla ikusgai, Errotan.



Carlos de Cosen argazkia.

Eskolako futbito zelaiko argiztapena hobetuko dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko eskolako futbito zelaia hobetzeko asmoz, udalak hamabi argiztapen proiektagailu ipiniko ditu datozen asteetan. Udaletik jakinarazi dutenez, LED argiak izango dira eta horiei eskerrak gauzez hobeto ikusiko da. Horren ondorioz, instalazioaren erabilera handiagoa izango da.

Atxondoko Udalak 12.000 euro ipiniko ditu argiztapena hobetzeko.

Atxondoko Udalaren esanetan, lan hauek hainbat gurasok egingako eskaria dira eta eskari horri erantzunez egingo dituzte lanak.



Eskolako futbito zelaia.



Plaza erdian ipini zituzten tamaina handiko hondakinak.

Hondakinen bilketaz kontzientziatzeko kanpaina "boikoteatu" dute Elorrioren

Udalak tamaina handiko hondakinei loturiko kanpaina egin zuen; horregaitik zeuden halako hondakinak plazan

ELORRIO • A.M.

Joan zen eguenean, su eman zioten Elorrioko plazan utzitako hondakin multzoari. Joan zen astean, Elorrioko Udalak tamaina handiko hondakinei loturiko kanpaina egin zuen, eta, hain zuzen ere, horregaitik zegoen hondakin multzoa plazan pilatuta. "Oso gertakari larria da hau; arriskuan ipini ditu Alde Zaharreko etxebizitzak eta bertako bizilagunak.

Gertaturikoa onartezina dela uste dugu", salatu zuen Idoia Buruaga alkateak.

Bariku eguerdira arte zegoen aurreikusita sentsibilizazio kanpaina. Buruagaren berbetan, tamaina handiko hondakinen bilketa Mankomunitateari dagokion arren brigadako langileek urteak daramatzate epetik kanpora utzitako hondakin horiek jasotzen: "Ahalegina egin dugu tamaina

handiko hondakin hauek jasotzeko egun kopurua handitu dezala eskatzeko Mankomunitateari, eta baita herritarrei informazioa helarazteko ere, eta ez gara nekaturiko herri atsegin eta garbia lortzeko saiakeran. Elorrio txukun mantentzea denon ardura da".

Elorrioren hileko bigarren eta laugarren asteetan batzen dira tamaina handiko hondakinak, martitzeneko 20:00etatik eguazteneko 07:00ak bitartean. Baina, udalaren esanetan, data horiek "ez dira errespetatzen".

Mallabiko Elizoste inguruan prest dago haur parke eraberritua, hamar jolas berrigaz

Jolasak gune bitan banatuta daude. Sei jolas aurreko parkea zegoen tokian ipini dituzte, baina eremu zabalagoan; beste lau oreka-jolas parkearen ondoko berdegunean kokatu dituzte, Elizalde plazara igotzeko ezpondan dagoen txirristaren ondoan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabian prest dago jolas berriak dituen Elizoste inguruko haur parkea. Guztira, hamar jolas ditu parkeak eta 12 urtera arteko haurrei zuzenduta dago. Aniztasun funtzionala duten haurrek erabiltzeko "gutziz edo partzialki" egokitu daitezkeen ekipoak dituztela azaldu dute udaletik.

Jolasak gune bitan daude. Alde batetik, aurretik zegoen parkearen leku berean baina azalera handi- txoagoa hartuta, inguratzen duen lorategiaren mugaraino heltzen baita orain. Gune horretan sei jolas berri ipini dituzte. Euretariko bat erdigunean dorre bat duen joko unitatea da, soka-arrapala, txirrista eta suhiltzaileen barra banagaz konbinatuta. Kai bikoitzeko kulunka unitate bat, lurzoru gogorreko kono birakariko unitate bat eta igotzen eta jaisten den kulunka unitate bat dira gune horretako beste jolas batzuk.

Bestetik, Elizaren eraikinaren ondoan dagoen berdegunearen zati txikian oreka-jolasak ipini dituzte belarretan. Horrela, jolas-gunea eta Elizalde plazara igotzeko ezpondan dagoen txirrista handia lotu dituzte. Eremu berri honetan lau oreka-elementu instalatu dituzte. Robinia tindatuzko zurezko 2



Irudian haur parkeko jolas bat: erdigunean dorre bat duen jolas unitatea, soka-arrapala, txirrista batez.

Lana urtarril hasieran esleitu eta hile eta erdi geroago amaitu dute, 62.661 euroko kostuagaz

zutoinek eta oreka-sokak osaturiko elementu-unitate bat eta sokazko sare horizontaleko oihal bat dira gune honetako elementuetariko bi.

Segurtasuna eta inklusibitatea
"Parkeko haurrentzako gunea berritzeko orduan, espazioa haurren gozamenarako baliagarria izatea zen gure helburua, adin bakoitze-

rako jolas egokiekin, segurtasuna eta inklusibitatea bermatuz, Mallabiko haur guztiak jolas daitezten bertan", azaldu du Igor Agirre herriko alkateak.

Haur parkea egiteko lanak urtarilaren hasieran esleitu zituzten eta hile eta erdi geroago amaitu dituzte. Proiektuaren kostua 62.661 eurokoa izan da.

Ariketa fisikoaren onuren gaineko orientazio zerbitzua erabili dezakete izurtzarrek

IZURTZA • J.D.

Martxan da Durangaldeko Mankomunitatearen MOBI Durangaldea ekimena. Proiektuaren helburua ariketa fisikoaren onurak eta sedentarismoaren kalteak gizarteratzea da. Gaur egun zerbitzua jasotzen ez duten pertsonak aktibatu gura dituzte, euren udalerrian bertan dauden baliabideei (kirol instalazioak, ikastaroak, ibilbideak, elkarteak...) buruzko informazio guztia emanez edo

2021etik Izurtzan ere eskaintzen du zerbitzua Durangaldeko Mankomunitateak

jardueren proposamen pertsonalizatua diseinatzuz, horrela ariketa egiteak dakartzen onurak ezagutarazteko. 2021etik Izurtzara ere zabaldua dagoen ekimena da. Urte hartan hainbat herritara zabaldu zuten ekimena. Aurten, baliteke Mañariak eta Izurtzak indarra batzea eta herri bietako nagusiekin talde bat osatzea ariketak egiteko. Ekimena eguaztenetan egiten dute. Zerbitzu hau jasotzeko interesa dutenek Durangaldeko Mankomunitatera jo dezakete.

Otxandioko 19 nerabek parte hartu dute Valdezcarayra egindako eski irteeran

Irteerak harrera ona izan du eta hurrengoia nora egin pentsatzen dabilta dagoeneko



Nerabeak eta hezitzaileak, Valdezcarayko eski estazioan.

OTXANDIO • J.D.

Txatxilipurdi aisialdi taldea nerabeengana heltzeko ahalegin berezia egiten dabil eta euren begira antolatutako eskaintzak harrera ona izan du. Oraintsu, Errioxako Ezkarai ondoan dagoen Valdezcarayko eski estaziorako irteera antolatu dute eta 19 nerabek parte hartu dute. Euretariko batzuentzat eskiak ipini dituzten lehenengo aldia izan da gainera, aisialdi taldeko kideek esan dutenez.

Aurrerantzean ere hilean behin herritik kanporako irteera bat egiten ahaleginduko dira. Nerabeekin berba eginda, hainbat ideia irten da. Baliteke hurrengo irteera paintball-a praktikatzeko izatea, martxoan.

Mañariko Hontza Museoan monitore baten bila dabilta lanaldi erdira kontratatatzeko

C1 euskara maila izatea da eskakizunetariko bat

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Hontza Museoa bertan lan egingo duen monitore baten bila dabil, lanaldi erdirako. Biologia eta Ingurumen Zientziak egina izatea da eskakizunetariko bat, eta baita C1 euskara maila izatea eta

Durangaldekoa izatea ere. Interesdunak otsailaren 25a baino lehenago ipini behar dira hartu-emanetan museoko ardura-dunekin. Telefonoa 946 216 555 da eta hartu-emanetarako helbide elektronikoa honako hau: igor@hontzamuseoa.eus.



Mañariko Hontza Museoa, Ebaristo Bustintza 'Kirikiño' kalean.

The Connection-eko Brad Marino Berrizera dator

Marinok Berrizen joko du estatuan egiten dabilen biraren azken kontzertua; domekan izango da, 21:00etan

BERRIZ • A. M.

The Connection taldearen sortzaileetarikoa den Brad Marinok kontzertua emango du Berrizko Topan. The Connection-egaz rock munduan ezagun egin ostean, 2018an bakarkako ibilbideari ekin zion. Ordutik, power pop, 50eko rock and roll eta 77ko punk doinuak uztartzen ditu bere diskoetan, eta abesti zuzen eta freskoak ontzen ditu. Disko bi kaleratu ditu, *Extra credit* eta *Looking for trouble*, azken hau 2021ean; Mari-

nok berak jotzen ditu abestietako gitarrak, bateriak eta teklatuak, eta abestu ere berak egiten du. Flamin' Groovies, Paul Collins Beat, Nick Lowe, Ramones edo Rolling Stonesen zaleek gozatua hartuko dute kontzertuagaz. Bost egunetan sei kontzertu joko ditu Marinok: Valentzian, Madrilan, Lugon eta Oviedon; domekan hitzordu bikoitza izango du bere zaleekin, lehenengoa Bermeoko Belezeta Mallandran, 13:00etan, eta bigarrena Berrizen, 21:00etan.



Brad Marino.

Berrizko Udalak BakQ ziurtagiri elektronikoa lortzea erraztuko du

BERRIZ • A. M.

Berrizko Udalak BakQ ziurtagiri elektronikoa lortzeko egiaztapen zerbitzua eskainiko du otsailaren 27tik aurrera. BakQ-agaz, administrazio zerbitzuak Internet bidez kontsultatu eta izapidetu daitezke; hori dela eta, udalak BakQ egiteko deia egin die berriztarrei. "Herritarrentzako identifikazio elektronikoen "giltza orokorra" da eta tresna seguru eta ezinbestekoa bihurtu da edozein bide elektronikotatik (ordenagailua, mugikorra, tableta) administrazio izapideak egiteko. Doako ziurtagiria da eta erroldak lortzeko, laguntza-eskaerak egiteko, dokumentuak erregistratzeko, obra-lizentziak eskatzeko eta seme-alabak zaintzeko laguntzak jasotzeko aukera ematen du, besteak beste", azaldu dute ohar baten bitartez. Orain arte Osasun Zentroan baino ezin zen eskatu. Baina astelehenetik aurrera udaleko HAZ zerbitzuan ere eskatu ahal izango da. Udal tramiteak ez ezik, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Osakidetza eta Jaurlaritzaren kudeaketak egin ditzakete herritarrek. 16 urtetik gorako herritarrek eskatu dezakete.

Bizikletentzako beste aparkaleku bat ipini dute Zaldibarren, laugarrena

Zaldibarko Udalak udaletxe plazan ipini du bizikletak aparkatzeko gune berria



Bizikletentzako aparkaleku berria.

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udalak bizikletak aparkatzeko laugarren gunea ipini du oraintsu. Horrela, herriak ohitura osasuntsuen aldeko jarrerak eta bizikletaren erabilera bultzatu gura ditu. Azken gune hau aurretik ipinitako hirurei batzen zaie, honenbestez. Haurreskolan, kiroldegian eta Solobarriako futbito zelaiaren ondoan daude beste hiru guneak. "Bizikletan ibiltzea osasungarria da, garraio biderik garbiena eta iraunkorrena izateaz gainera. Ez du gas toxikorik isurtzen eta ez du zaratarik egiten. Bizikletan egiten den kilometro bakoitzeko, autoan ibiliz gero baino 300 gramo CO2 isurtzea saihesten da", azaldu du Zaldibarko Udalak ohar baten bitartez.

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

OTSAILEKO ZOZKETAK



Irati filmerako sarrera bikoitza. Martxoaren 4an, Arriola antzokian.



Arrainak bihotzean ikuskizunerako sarrera bikoitza. Martxoaren 4an, Zornotza aretoan.



Bizarrak 2.0 umorezko bakarrizketa saiorako sarrera bikoitza. Martxoaren 5ean, San Agustinen.



Uxarte sagardotegian bi pertsonentzako jatordua.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Hondamendia, Zornotza aretoan: Bidane Txopitea
BBK Karpin fauna: Rakel Jaio eta Ane Lekerika

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten ere ANBOTOk Inauterietako argazki lehiaketa antolatuko du eta parte hartzeko gonbita egin die bere irakurleei. Asteon, Durangaldeko biztanleen inauterietako argazkiak jasotzen egon gara ANBOTOn, eta, orain, argazki irabazlea aukeratzeko momentua heldu da. Astelehenean goizera bitartean, otsailak 27 (10:00ak arte), herritarrek botoa emateko aukera izango dute. Botoa emateko aukera *anboto.org* atariaren bitartez egongo da. Lehiaketara 16 argazki aurkeztu dituzte guztira.

Astelehenean goizera bitartean botorik gehien jasotzen duen argazkiak irabaziko du lehiaketa eta saria Errigorako otzara eder bat izango da.

Astelehenean goizera bitartean eman daiteke botoa inauterietako argazki lehiaketan

Botorik gehien lortzen duen argazkiak Errigorako otzara eder bat irabaziko du



Geu Be elkarteko kideen argazkia.

Durangaldea asteon



ZALOA FUERTES

Uri Ruiz irakasle durangarra hil da

DURANGO | Uri Ruiz Bikandi irakasle durangarra martitzen goizean hil zen. Irakaslea, hezitzailea eta idazlea izan zen, hezkuntzako hainbat arlotan aritua. Filologiako ikasketak egin zituen eta pedagogian doktorea izan zen. Iurretako Goiuria ikastolako irakaslea ere izan zen. Andoni Barreñak testu hunkigarria idatzi du Uri Ruizi buruz.

Gutuna

Uri Ruiz Bikandi, agur eta ohore!

Bizi garen tokiak eta garaia eratzten gaituzte, baita senideek eta herrikideek ere. Uri Durangon jaio zen 1950ean, gerrak eta faxismoak jotako herri eta etxe batean. Horregatik, bizitzari, gizarteari eta etorkizunari buruz etxean eta gizartean jasotako aurkako ikuspegiak moldatu zuten. Urik amamaren altzoan aditu zituen gerraren bortizkeriak, justizia ezak, gizonen maltzurkeriak, errepresioa, askatasun eza eta boteretsuen ase ezintasuna. Eskolan eta gizartean, oster, faxismoaren aldeko gorazarreak entzun zituen etengabe, langarrak lurra bustitzen duen legez.

Gaztetan jabetu zen bere bizitza gidatuko zituzten zerez: euskararen eta euskaldunen bazterketaren, emakumeen eta gizonen eskubide berdintasun ezaren, zapalduen eta gizarteak baztertuen egoera latzaren eta elizak faxismoarekin zuen konplizitate maltzuraren jasan ezinak moldatutako zedarriak. Euskara ikasi zuen gaztetan eta euskara biziberritze ekimenean eta Iurretako eta Elorrioko ikastolen hasieretan parte hartu zuen andereño legez, geroago hezkuntza publikoan lan egiteko. Hezkuntzan beti egin du pedagogia eraldatzaile eta berritzailearen alde, autoritarismoaren aurka. Emakumeen eskubideen ezaz jabeturik, gogor eta ozen erreibindikatzen zuen genero berdintasuna, eta indar osoz salatzen zituen injustiziak eta gizonkeriak, Durangoko Talde Feminista ere sustatuz. Esango nuke nik ezagutu dudan lehen ekintzaile feminista izan dela. Faxismoaren eta gizakiaren zapalkuntzaren aurkako borroka mugimendu sozio-politikoetan parte hartzeri eta komunismora eroan zuen Uri, injustiziaren aurka eta gizakion berdintasunen alde.

Durangarrei eginiko ekarpenaz eskerturik natorkizu azken agurra egiten, eta zutaz harro gaudela aldarrikatu nahi dut lau haizetara! Bekizu lurra arina, adiskide!

Andoni Barreña

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ



Bereizmen handiko osasun zentro bat nahi dugu

Osasuna da guztion kezka nagusienetakoa. Durangoko EAJ-PNVn argi dugu osasun-arretan nahitaezkoak direla segurtasuna, gertutasuna eta diagnostiko arinak egitea; horregatik, iazko maiatzean Durangon Bereizmen Handiko Osasun Zentro bat egitea proposatu genuen. Proiektua bideragarria, egingarria eta beharrezkoa da eta Trenbidearen gunean irisgarritasun ezin hobea du.

Durangoko jeltzaleok herrian dauden bi osasun zentroak handi eta modernoago batean bateratzea proposatzen dugu Durango eta eskualdeko osasun-zerbitzua handitu eta hobetzeko.

Durangoko EAJ-PNVren proiektua Gernikako osasun-zentroaren antzekoa da. Ospitalizaziorik gabe, proba diagnostikoak egin (mamografiak adb.), kanpo-kontsultak artatu, etxeko ospitalizazioa erraztu, 24 orduko urgentzia potenteak izan, eta bestelako zerbitzuak eskaini eta bermatu ditzakeena. Horrek, gainera, erreferentziako ospitalera beharrezkoak ez diren lekualdatzeak ekidindu luke.

Gure apustua elkarlanarena da. Osasun zentro potentea eta erreferentziako ospitaleen arteko elkarkidetzaren aldekoak gara. Gainera, osasun sailburua eta hainbat legebiltzarkide (EH Bildukoak horien artean) ere, inguruko ospitaleetara iristeko denbora kontuan izanik, Durangok halakorik behar ez duela diote.

Durangoko EH Bilduk eta Podemosek temati diraute beharrezkoa ez den ospitalea eskatzen, eta eurek proposamen zehatzik gabe zarata egiten duten bitartean, Durangoko EAJk lanean dihardugu Durangon osasun-premiak eta -arreta hobetuko duen Bereizmen Handiko Osasun Zentro bat izateko.

EMAKUMEAK eta LITERATURA

Dinamizatzailea
JOSUNE MUÑOZ
Sarrera gonbidapenarekin

Hizkuntza: Euskara
Ordua: 18:30
Lekua: Iurretako
Herri Biblioteka



94 681 27 26 | biblioteka@iurreta.eus | 688 863 736

2023

BERBALDIA

2 Martxo

YOLANDA ARRIETA

Antolatzaileak

Iurreta
Biblioteka

Jabekuntza Eskola
Ikasle de emakumeen
Berdintasuna (gizakia)
Iurreta

Laguntzaileak



Arriete
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA




DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak




MATEMATIKA

Marraztu termometroetan gainean ageri diren graduak.




DOMINOA

Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.



MARGOTU

Margotu ezazu beheko marrazkia gurago duzun moduan.





40 Minutu Rock

MUSIKA DURANGO :: Otsailak 25

Musikazaleek elkartasunez beteko dute Landako Gunea zapatuan

Beste urte batez, 40 Minutu Rock elkartasunezko musika jaialdiak musikazalez beteko du Durangoko Landako Gunea zapatu honetan. Kontzertuak 10:30ean hasiko dira eta egun osoz egongo dira. Hamazortzi talde arituko dira guztira, oholtza nagusi bitan eta karpa txikiko taulan banatuta. Bengo taldeak hasiko du jaialdia, eta, ondoren, Iheskide, Unidad Alavesa, Lukiek, Ginger, Bri-

gade Loco eta Perlata taldeak igoko dira oholtzara. Ekitaldia 18:50ean hasiko da.

Jaialdirako abestia egin duen Skabidean taldeak ere joko du, 19:05ean. Euren ondoren, Bulego, Rotten Xiii, Merina Gris, Huntza eta Dupla taldeek joko dute. Karpa txikian, KS-KA+ Azken erromantikoak arituko dira lehenengo, 12:00etan; gero, Lietako esan digluten, Pary & Tiza eta DJ Reimy.

Otsailaren 24an

BERRIZ musika

Dube, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO musika

NIZE + Harat, 22:30ean, Ateneoan.

DURANGO berbaldia

"Los Zuloaga-una familia de artistas", (Hizlaria: **Ignacio Suárez Zuloaga**), 19:00etan, Arrupe Aretoan. Vicente Zavala kultur elkarteak antolatuta.

IURRETA ipuinak

'Basoko sekretuak' (Ameli eta Xirrikituen jostunak), 17:00etan (3-5 urteko umeentzat), eta 17:45ean (sei urtetik gorakoentzat), herri bibliotekan.

IURRETA ipuinak

'Cuentos tradicionales de Galicia' (Quico Cadaval-Galizia), 19:00etan, herri bibliotekan.

ZORNOTZA antzerkia

'Hondamendia' (Artedrama eta Axut! konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 25ean

BERRIZ ipuinak

'Abentura zirrargarria' (Perli eta Koxkolo ipuin kontalariak), 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia

'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' (Kamikaz kolektiboa), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO inauteriak

Inauteri dantzak: Jainaga, Narbaiza eta Patxi, 18:00etan, Plateruena kafe antzokian.

IURRETA irteera

Gallandara frontalagaz, 19:00etan, Askondoko aterpetik. Umeekin egiteko moduko ibilbidea. Txikienek ibilbidearen erdian batzeko aukera izango dute, Lukuarrietatik irtenda.

ZORNOTZA musika

'Pianoa atzo eta gaur' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 25era bitartean

ELORRIO erakusketa

Enrike Larramendiren marrazkiak, Iturri kultur etxean. Elorrioko, Abadiñoko, Durangoko, Elgetako eta Eibarko baserrietako 115 marrazkiekin osatu du erakusketa.

ZORNOTZA erakusketa

'Iruditik eskura, ideiatik kolorera, jatorritik amaierara apaltasunetik, argia' erakusketa (Pintzela elkarteak), Zelaieta Zentroko zeramika gelan. Ate irekien jardunaldia, otsailaren 24an

(gaztelaniaz), 19:00etatik 20:30era.

Otsailaren 26an

ABADIÑO tailerra

Isiotutxo tartea: umeentzako tailerrak, 17:00etan, Isiotu elkartearen lokalean.

DURANGO musika

'Go!azen 9.0' antzezlan ikuskizuna, 17:00etan, San Agustín kulturgunean. Bigarren emanaldi bat ere egingo dute, 19:00etan.

DURANGO dantzaldia

Pertsona nagusientzako dantzaldia, 18:30etik 20:30era, Landako Kiroldegian.

DURANGO kantak

Durango Kantari, 12:30ean, Andra Marian.

MALLABIA pilota

Pala txapelketa, 10:30ean, herriko frontoian. **Emakumeen gomazko paleta txapelketan elite mailako final-aurrekoak**, 17:00etan, frontoian.

Otsailaren 26ra bitartean

DURANGO erakusketa

Umore grafikoari buruzko

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

erakusketa (Juan Luis

Garciaren lanak), Ezkurdi erakustaretoan. Azken urte bietan egindako 100 bineta baino gehiago, horietariko batzuk TMEO aldizkarian argitaratuak.

Martxoaren 2an

IURRETA berbaldia

Yolanda Arrieta, 18:30ean, herri bibliotekan.

Martxoaren 3an

ABADIÑO musika

La Modern klown ikuskizuna, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

BERRIZ antzerkia

'Erreka Mari' txotxongilo ikuskizuna, 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO antzerkia

'Las que limpian' (A Panaderia konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

Martxoaren 19ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Egiteko duguna' erakusketa (Cristina Gutiérrez Meurs), Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Berriz

KULTUR ETXEAN

• **Yuku eta Himalayako lorea**

barikua 24: 17:00

domeka 26: 17:00

:: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• **Irati**

barikua 24: 18:30 / 21:00

zapatua 25: 18:30 / 21:00

domeka 26: 19:30

astelehena 27: 18:00 / 20:15

martitzena 28: 18:00 / 20:15

eguaztena 1: 19:00

• **Almas en pena de Irisherin**

barikua 24: 18:30 / 21:00

zapatua 25: 18:30 / 21:00

domeka 26: 19:30

astelehena 27: 18:00 / 20:15

martitzena 28: 18:00 / 20:15

eguaztena 1: 19:00

• **Tar**

barikua 24: 20:00

zapatua 25: 19:30

domeka 26: 19:30

astelehena 27: 19:00

martitzena 28: 19:00

eguaztena 1: 19:00

• **Momiak**

zapatua 25: 16:30

domeka 26: 17:00

• **Momias**

barikua 24: 18:00

zapatua 25: 16:30

domeka 26: 17:30

• **Mi querido monstruo**

zapatua 25: 17:00

domeka 26: 17:30

:: Elorrio

ARRIOLA ANTZOKIA

• **Almas en pena de Inisherin**

zapatua 25: 20:00

domeka 26: 20:00

astelehena 27: 20:00

• **El gato con botas: el último deseo**

domeka 26: 17:00

:: Zornotza

ZORNOTZA ARETOA

• **Almas en pena de Inisherin**

domeka 26: 20:00

astelehena 27: 20:15

• **Astérix y Obélix: El reino medio**

domeka 26: 17:00

Athletic Club



Vs



FC Barcelona

Athleticen eta FC Barcelonaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Athleticen eta Gironaren
arteko partidarako sarreraren
irabazlea:

Jose Maria Azkarate

Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: martxoak 6.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

*Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!*



**anboto
kide**

“Pelikula guztiak dira zinema aretoetan ikustekoak, baina 'Irati' oraindino gehiago”

Martxoan Durangaldeko hainbat zinema aretotan egongo da aukera 'Irati' ikusteko; gaurtik aurrera, Durangoko Zugazan



Eneko Sagardoy Mujika

Aktorea

DURANGO | 1994

ere pista bat ematen digu; jendea, ikusleak, gustura geratzen ari dira eta hori oso garrantzitsua da guretzat.

Lana ikusi duten askok zineman ikusteko moduko filma dela esan dute, pantaila erraldoian.

Pelikula guztiak dira zinema aretoetan ikusteko modukoak, baina, egia esan, *Irati* pelikulak ezaugarri bereziak ditu, zineman gozatu beharrekoak. Paisaia zabal asko grabatu dira eta horiek gehiago gozaten dira pantaila handi batean. Istorio fantastikoa izatera, soinua eta musikak ere garrantzi berezia dute, eta beste modu batera gozatu ahaliko dira zineman.

Ikusmin handia dagoela ikusten gabilta, gogo berezi bat dagoela pelikula ikusteko

Promozio lan handia egiten zabiltzate.

Bai, lantalde osoa promozio lan handia egiten gabilta eta horregaz ere ikusten gabilta ikusmin handia dagoela, gogo berezi bat dagoela pelikula ikusteko. Argi dago fantasiaren artean gogo berezi bat piztu duela pelikulak, jorratzen den gaiagaitik. Baina jakin-min hori orokorragoa ere badela esango nuke. Beste jende asko ere joango da zinema aretoetara, hemen egindako pelikula bat delako, euskaraz egindakoa eta hemengo istorio bat kontatzen duena. Egia esateko, gogotsu gaude Hego Euskal Herriko aretoetara heldu eta zelan doan ikusteko.

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

Asteburuan helduko da Hego Euskal Herriko zinema aretoetara 'Irati'. Eneko Aristaren pertsonaiaren azalean sartu da Eneko Sagardoy aktore durangarra. Paul Urkijo zinema zuzen-

dariaren lana euskarazko proiekturik anbiziotsuenetakoa da eta fantasiako zaleen artean ez ezik, ikusmin handia sortu du zinemazaleen artean ere, orokorrean. Asteburuan Durangoko Zugaza aretoan emango dute eta

martxoan zehar Elorrion eta Zornotzan ere botako dute. ANBOTO Sagardoyg egon da filmari buruz berba egiten.

Asteburuan helduko da 'Irati' Hego Euskal Herriko zinema aretoetara.

Gogotsu zaude?

Zenbait emanaldi izan dugu dagoeneko; Madrilén, Iruñean eta Donostian, besteak beste. Lau jaialditan ere aurkeztu dugu eta publikoaren saria eman digute denetan. Horrek

Muntatze prozesuan dago 'Betiko gaua', Sagardoyren estreinako lana zuzendari lez

Urtea amaitu orduko, jaialdiren batean aurkeztea da Sagardoyren asmoa



Elena Irureta eta Eneko Sagardoy, grabazioan. ASIER CORERA

ZINEMA • A. M.

Otsailean amaitu dute *Betiko gaua* film laburraren grabazioa; filma Eneko Sagardoyk zuzendari lanetan izango duen lehenengo lana da. Durangarra "oso pozik" dago erronkagaz. "Aspaldidanik nuen gogo horrelako zerbaitetan parte hartzeko, eta banekien lehenago edo geroago egingo nuela", azaldu du. "Gogo nuen nire gaitasuna probatzeko, ikusteko zein lengoia garatu nezakeen, adibidez. Dagoeneko hamaika urte daramatzat filmazio lanetan, eta horrek asko lagundu dit buruan nuena egin ahal izateko", adierazi du zinemagile durangarrak. *Betiko gaua* urtea amaitu orduko estreinatzea da lantaldearen helburua, Sagardoyren berbetan. "Orain muntatze lanetan gabilta. Urtea amaitu aurretik jaialdiren batean erakustea gustatuko litzaiguke", gaineratu du. Grabazio lanak Arabako mendialdean egin dituzte. "Oso esperientzia

politza izaten ari da hau guzti hau", azpimarratu du Sagardoyk.

Kamera atzean ere

Betiko gaua Sumendi (2020an Eneko Ander Sagardoy anaiagaz batera sortu zuen ekoiztetxea), Galapan (Ander Barinaga-Rementeria) eta Ikusgarri films (Paul Urkijo) ekoiztetxeen produkzio bat da, eta Miren Gaztañaga eta Elena Irureta aktoreak ditu protagonista. Elena alokairuzko auto bat gidatzen dabilela, Mirenek errekonozitu egingo du eta hari segitzeari ekingo dio; abiapuntu hori du Sagardoyren lanak. Nerea Ibarzabal bertsolari eta idazle markinarragaz batera idatzi du gidoia Sagardoyk; *Buruz buru* (Lanku, 2018) liburu kolektiboan hasi zen bien arteko lankidetzeta. Lantaldean Maite Arroitauregi eta Arantzazu Calleja (musika, Xanti Salvador (soinua) eta David Heras (efektu digitalak) daude, besteak beste.



Astelehenean aurkeztu zuten Durango Kantari egitasmoa.

Durango Kantariren lehenengo saioa domeka honetan izango da

Otsailaren 26an 11:30ean, Andra Marian batuko dira; 100 liburuxka banatuko dituzte

KANTUGINTZA • ARITZ MALDONADO

Egundo I elkarteak eta Durangoko Udalak elkarlanean sortu duten ekimena da Durango Kantari. "Udaleko Kultur Saitetik zenbait ekimen berri antolatu dugu azken urteotan kaleak biziberritzeko; besteak beste, Plazara, Dantzaro eta Kulturaro. Durango Kantari ekimen berri bat da, euskal kantutegi tradizionala, moderno eta beste hizkuntza batzuetako abestiak lau haizetara zabaltzeko. Durango bizi eta alai bat gura dugu, eta horrelako ekimenek helburu hori lortzen laguntzen

dute", azaldu zuen Julián Ríos alkateordeak astelehenean egindako prentsaurrekoan. Horrelako kantaldiak hile birik behin egitea izango litzateke asmoa, antolatzailen esanetan; lehenengo domeka honetan izango da, hilak 26, 11:30ean. Estreinako saio honetarako, gonbidatuak izango dituztela argitu zuten. "Adibidez, Orfeoiko lagunak izango ditugu gugaz. Abesti klasikoak eta berriak uztartuko ditugu; besteak beste, Benito Lertxundiren, Gatiuren, Imanolen eta ETSren abestiak kantatuko ditugu", azaldu

zuen Ramon Castillo Egundo I taldeko kideak. Kantu horien (98 guztira) hitzak liburuxka batean batu dituzte, eta domekako saioan 100 ale banatuko dituzte, herritarrekin batera abesteko. Aurrera begira, egitasmoa Durangoko auzotara zabaltzea gura dute.

Egundo I 2005ean sortu zuten eta gaur egun hamabost bat kide batzen dira eguaztenero, iluntzeetan, elkarregaz abestu eta entseatzeko. Parte hartzeko gonbitea eginda amaitu zuen aurkezpena Castillo: "Etorri gura duenak zabalik ditu atek".

Xabier Amurizak III. Monzon-Ganuz saria jasoko du

Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak ematen dute saria; martxoaren 16an izango da sari banaketa

KULTURA • A. M.

Bergarako alkate Gorka Artolak eta Olaso Dorrea fundazioako presidente Iratxe Esnaolak azaldu dutenez, "Euskal Herriari, euskal kulturari eta euskarari egindako ekarpenagaitik" emango diote Monzon-Ganuz saria Xabier Amurizari. Besteak beste, Amurizak bertsoegintzari egindako ekarpena, bertso eskoletan eragindako iraultza eta politika arloan izandako konpromisoa azpimarratu

dute. Martxoaren 16an egingo dute saria emateko ekitaldia, Bergarako Seminarixoa aretoan; oraindino ez dute ezagutarazi sariaren egilearen izena.

Monzon-Ganuz saria 2021ean sortu zuten, Telesforo Monzon heriotzaren 40. urteurrenean, "euskal utopikoak" saritzeko asmoagaz. Lehenengo ekitaldian Libe Goñi omendu zuten; iaz Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Aiastuik jaso zuten saria.



Gorka Artola eta Iratxe Esnaola.

Gai librean

Isilaraziak XII

"... ematen zuen ustez emakume bat bortxatu nahian zebilela. Lekuko batzuek azaldu dutenez, beste gizon bat zegoen eszenari begira. Bazirudien emakumea konorterik gabe zegoela une oro."

"(Aitak) gela batean giltzapetzen ninduen eta eguna jan gabe ematen nuen. Ihes egiten saiatuz gero, jo egiten ninduen."

"Neskatila hainbat lesioren ondorioz hil zen. (...) Belaunak haragi bizian zituen."

"Biktima larri eraman zuten ospitaleko erredura-unitatera, eta han egon zen ospitaleratuta hil zen arte (...) Ertzainek gizona izan zela susmatu zuten, erreduz zituelako, batez ere eskuetan; gainera, aurrekariak zituen, emakume berari indarkeria matxista eragiteagatik".



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa

"Goizeko bostetan sartu nintzen, eta bostetan jaio zen nire haurra, nik beste seme bat izan nuen lekuan. Gainean jarri zidaten, neskato ederra zen. Esnatu nintzenez, hilda zegoela esan zidaten."

"Akusatua erratz-makilekin eta gerrikoekin kolpeka hasi zitzaion, gutxienez astean behin, eta horren ondoren akusatua ez zuen barkamenik eskatzen, bere erruz zela esaten zuen."

"Gizona, lehenik, hitzeko irainekin hasten da, eta, ondoren, besotik heltzen dio. Emakumeak une horretan ihes egitea lortu zuen eta kalera irten zen lagun bati laguntza eske. Ondoren, gizona atzetik joan zitzaion eta ukabil-kolpe batzuk eman zitzaion."

Testigantza hauek zenbait hedabidetatik ateratakoak dira. Cristina

Gutiérrez Meurs artistak *Egiteke duguna* erakusketan ikusgai jarri dituenak. Kasu honetan emakumeen izenak ezkutatu ditu, baina *Trapu zikinak* izeneko arte-instalazioan horien guztien eta beste batzuen izenak bordatu tipo gorbatetan. Espainiar estatuan eraildako emakume bakoitzeko gorbata bat. 400 baino gehiago 2 urtetan.

Mari, Beatriz, Josefina, Valeria, Aranzazu, Cristina, Maria Luisa, Luz, Lucía, Antonia, Verónica, Leticia, Rosario, Raquel, Clementina, Daría, Carmen, Laura, Estefanía, María del Pilar, Alexandra, Maribel, Rosa, Rebecca, Victoria, Valentina, Adela, Teresa, Mari Carmen, Mari Jose...

Emakume izenak. Historia liburuetan azaltzen ez direnak, baina egunkarietan bai. Gordina, zitala, maltzurra, gupidagabea, krudela... Errealitatea.



Lur Basterretxea Kerexeta

Mendiko eskia

ELORRIO | 1979

“Ez dut proba laburretako sufrimenduaren falta igartzen; orain hobeto moldatzen naiz luzeetan”

Lur Basterretxea eskiazaile elorriarra postu aipagarriak lortzen dabil mendiko eskiko Euskal Herriko Kopan

MENDIKO ESKIA • JOSEBA DERTEANO

Lur Basterretxea mendiko eskiko denboraldian murgilduta dago. Euskal Herriko Koparen barruko proba bitan lehiatu da. Candanchun bigarren geratu zen beteranoetan, eta hirugarren seniorretan; Izaban bigarren beteranoetan, eta laugarren seniorretan. Horrez gainera, alpinismoa ere egiten du.

Zergaitik hasi zinen mendiko eskia praktikatzeko?

Txiki-txikitatik gustatu izan zait mendia. 20 bat urteagaz, noizbehinka eski alpinoa egiten nuen Erdella mendizale taldeagaz. Orain hamabi urte mendi eskian hasi nintzen, neure kontura. Hasieran, eski astunekin eta lasai ibiltzen, denak hasten diren moduan. Bost bat urte geroago apur bat serioago hartu nuen kontua. Eski arinekin hasi nintzen, txapelketakoekin, eta ia astebururo joaten nintzen Candanchura entrenatzera.

Zelakoak dira txapelketako lasterketak? Zer izaten da gaxtena?

Elurraren egoerak asko baldintzatzen du jarduna. Elurrak zarakarra badu, orduan da gaxtena. Eskiak kateatuta geratzen dira, jausteko arriskua handitzen da, biratzea gehiago kostatzen da... Egoerarik onena elur-hautsa da, elur berria denean. Horrela egotea gustatzen zaigu denoi, baina Pirinioetan gutxitan egoten da horrela.

Zelako probetan moldatzen zara ondoen?

Proba luzeetan. Laburretan igartzen dut ez dudala orain urte batzuetako esplosibitatea. Eta ez dut gura ere halakoetan parte hartzea. Ez dut proba laburretako sufrimenduaren falta igartzen; orain hobeto moldatzen naiz luzeetan.

Euskal Herrian badago afizioa mendi eskian?

Bai. Candanchuko, Izabako eta Luz Ardidengo Altitoy probetara euskaldun asko joaten da eta euskal giro polita egoten da. Kirolariei dagokienez, mutil askotxo dabilta. Neskak gutxiago dira, baina bagabiltza batzuk, geroago eta gehiago. Gazteen falta bai igartzen dut, ez dabil gazte askorik. Ea gehiago animatzen diren!

Gustura zaude Izabako proban egingadako lanagaz?

Bai. Egia esanda, oso gustura nago, ze azkenaldian lasaiago hartzen nabil kirola eta mendia; gozatzen eta gailurretara joaten, eta ez buru-belarri entrenatzen, eta, hala eta guzti ere, proba oso ondo irten zitzaidan. Gainera, hiru-lau urtean ez da Izabako proba jokatu, pandemiagaitik eta elur faltagaitik, eta asko gozatu nuen, bai giroagaz bai aspaldi ikusi bako lagunekin.

Hiru lasterketak osatzen dute Kopa. Izabakoa eta Candanchukoa joan dira. Europako Mendietan izango den Andres de Regil proba da hirugarrena. Baduzu asmorik bertan aritzeko?

Ez neukan buruan bertan izena ematea, baina Izaban aspaldiko

jendea ikusi eta bertako giroa bizi ostein... Ez dakit zer egingo dudan. Pentsatuko dut.

Mendi lasterketetan ere ibiltzen zara. Aspaldiko afizioa duzu?

Urteei dagokienez, antzera ibili naiz mendiko lasterketetan eta mendiko eskian. Dena dela, betidanik egin dut korrika. Asfaltoko maratoi erdiak eta antzerakoak egiten nituen. Gero, mendian gehiago hasi nintzen. Aurten, lasterketa batzuetan parte hartuko dut. Orain, proba luzeagoak egiten ditut, ultrak.

Esaterako, iaz bosgarren amaitu zenuen Azeitiko Domusa Teknik Ultra Trailean.

Bai. Proba horretan asko sufritu nuen, sekulako beroa egin zuen! Proba bertan behera uzteko puntuan egon nintzen. Geratu eta denbora batean jesarrita egon nintzen. Baina, gero, gorputzaldi hobea sentitu eta oso ondo amaitu nuen.

Mendiko eskia ala mendiko lasterketak, zer gustatzen zaizu gehiago?

Gehien gustatzen zaidan kirola mendiko eskia da. Eta elurra ne-

guan baino ez dagoenez, sasoi hau mendiko eskirako aprobetxatzen dut. Udaberritik aurrera mendiko lasterketetan zentratzen naiz gehiago. Baina, tira, kirol gehiago ere egiten dut. Eskaladan eta parapentean ere ibiltzen naiz. Batzuetan ez dakit denbora nondik atera denetarako!

Alpinismoa ere egiten duzu. Mendi-rik garaienak aipatzearen, 2012an Argentinako Aconcagua mendia igo zenuen 'El Conquistador del Aconcagua' EITBko programaren barruan. Bestalde, 2015ean Kilimanjaro igo zenuen, Afrikako mendirik garaiena. Zelan sortu zitzaizun Kilimanjaro igozteko aukera?

Udako hilabete bitan Tanzania-ko haurreskola batera boluntario modura joan nintzen, irakasle. Han egonda, herrialdea apur bat ezagutu gura nuen eta, mendizalea naizenez, ez nuen Kilimanjaro igozteko aukera galdu gura izan. Errioxar bat ezagutu nuen, berak ere mendia igo gura zuen eta biok joan ginen.

Sei egunetan igo zenuen. Zelan gogoratzen duzu igoera?

Ezin zaitezke zeure kontura joan. Debekatuta dago. Hango gidariak hartu behar dituzu. Horrela joan ginen eta, egia esanda, oso ondo antolatuta zegoen dena. Egunero mila bat metroko desnibela igozten genuen. Ez da hainbeste ere. Azkeneko egun biak izan ziren gogorrenak.

Aconcagua, Kilimanjaro... besterik egongo da?

Inoiz pasatu zait burutik besteren bat igozteko. McKinley igozteko gustatuko litzaidake [AEBetako mendirik garaiena] eta Himalaya ere hor dago. Beraz, auskalo! 2012an Aconcagua igo eta gero, zerbait potentea egiteko gogoia izan nuen, zortzimilako bat barne. Proiektu batean egon nintzen, Juanito Oiarzabalegatz, baina bertan behera geratu zen. Pena handia hartu nuen.



Lur Basterretxea mendiko eskiko proba batean.



Txapelketan parte hartuko duten puntista batzuk.

Emakumeen zesta-puntako Winter Series txapelketa Durangon datozen hiru astelehenetan

Lau bikote lehiatuko dira txapelaren bila Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Zestolari guztiak gazte-gazteak dira: nagusienak 18 urte ditu. Gizonezkoen partiduak ere egongo dira

ZESTA PUNTA • J.D.

Datozen hiru astelehenetan, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak emakumeen Winter Series txapelketa hartuko du. Emakumeetan lau bikote arituko dira. Denak gazte-gazteak dira. Nagusienak, Eneritz Lizardi mutrikuarrak, 18 urte ditu. Beraz, Durangon batuko diren pilotariak, zesta-puntaren oraina ez ezik, etorkizuna ere badira.

Jaialdi bakoitzean, emakumeen binakako eta gizonen buruz buruko partidu bana jokatu da. Lehenengo finalerdia datorren aste-

lehenen izango da. Bertan, Ihart Arakistain sopolaztarra eta Frida Watkins zumaiarra Maite Ortiz de Mendibil gasteiztarraren eta Maialen Aldazabal berriatuarraren kontra lehiatuko dira. Ondoren, Johan Sorozabalek eta Xabier Barandikak neurtuko dituzte indarrak.

Bigarren finalerdiko protagonistetariko bat Helena Barreneitea da. 15 urteko durangarrak Lizardigaz osatuko du bikotea. Martxoaren 6an, Erika Mugartegi eta Arai Lejardi markina-xemeindarrak izango dituzte aurkari.

Gizonen partidua honako hau da: Aritz Erkiaga Imanol Lopezen aurka. Finalak martxoaren 13an izango dira. Jaialdi guztiak 19:00etan hasiko dira. Sarrerak www.eramanjaialai.com webgunean eskuratu daitezke.

Ate irekien jardunaldia

Bestalde, Jai Alai eskolak ate irekien saioa egingo du domeka honetan, 12:00etatik 14:00etara, 8tik 16 urtera artekoie zuzenduta. Aritz Erkiaga txapeldun handia bertan egongo dela aurreratu dute.

Ourdaybik auzolanean egin den boulderra aurkeztuko du

Urteetako lanaren ostean boulderra guztiz amaituta dagoela ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dute martxoaren 3rako, Landako Kiroldegi azpiko lokalean



2018an boulderreko lehenengo zatia aurkezteko egindako ekitaldia.

ESKALADA • J.D.

Ourdaybi kirol taldeko kideek urteetan auzolanean egindako lanari eskerrak, Landako Kiroldegi azpiko boulderra guztiz amaituta dago eta lorpen hori herritarrekin eta erabiltzaileekin ospatu gura dute. Horregaitik, jai bat antolatu dute martxoaren 3ko barikurako, bertaratu gura duten denentzat. Boulderra aurkeztuz hasiko dute ekitaldia, 18:00etan. Ondoren, Ourdaybiko hainbat kidek egindako ikus-entzunezkoak emango dituzte eta luntx bategaz errematatuko dute jai, 20:30ean. Tartean, sorpresaren bat ere egongo da. Ourdaybik 30 urtetik gora dara-

matza abenturari loturiko kirolak sustatzen, eta une honetan taldea osasuntsu dago. "Egon zen sasoi bat apur bat kostatu zitzaiguna,

"40 bat ginen eta orain 240 bat erabiltzaile ditugu", dio Ourdaybiko Jabier Canalesek

baina orain biziberrituta gaude. 40 bat ginen eta orain 240 bat erabiltzaile daude", dio Ourdaybiko Javier Canales Osinaga Joni-k.

Jokaldia

Munduko Koparen atarian

Urtero lez, otsailera hurbiltzean hasten da VI Nazioetako Txapelketa. Aurtengoa 129. edizioa izango da. 2023. urtekoa berezia izango da, uda ostean, hau da, irailetik urrira bitartean Munduko Kopa jokatu delako Frantzian.

Bigarren jardunaldia bukatu ostean kontuak argitzen doaz. Alde batetik Irlanda buruan dugu Eskoziarekin batera. Irlandarrek joko patroia argia dute: defentsa gogorra, melee indartsua, presioa zelai osoan eta atzean hiru laurden bizkorak ditu, horren adibide garbiena azken 17 partidatik 15 irabazi dituela. Eskoziak dugu buruan Irlandarekin berdinduta. Eskoziak urte larregi darama hor erdibidean, eta aurtengoa izan daiteke beraien unea. Eskarmentu handiko jokalariek ditu melean eta hiru laur-



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

Frantzia favorito nagusia genuen. Hala ere, Dublinen galdu ondoren, zail dute iazko txapela berrestea

Irlanda ikusten dut favorito nagusi eta Eskoziak ezustekoa ematea gustatuko litzaidake

denetan. Edozein partida hankaz gora jartzeko gai dira.

Frantzia favorito nagusia genuen. Mimo handiz prestatzen ari dira etxean jokatu duten Munduko Kopa. Maila handiko jokalariek dituzte. Hala ere, azken jardunaldian Dublinen galdu on-

doren zail dute iazko txapela berrestea.

Ingalaterrak zein Galesek beraien entrenatzaileak aldatzea erabaki zuten udazkeneko partiden ostean, eta Munduko Kopa baten atean aldaketak egitea ez da seinale ona izaten. Bi taldeek lehenengo partidetan zelaian zalantza ugari erakutsi dituzte.

Bukatzeko, Italia dugu. Itxura batean talderik ahulena izan daiteke, baina nahiz eta lehenengo bi partidak galdu, Erroman jokatuako norgehiagokan Frantziak izerdia sendo bota behar izan zuen italiarrak mendean hartzeko, eta Twickenhamen jokatuakoan ere itxura ederra eskaini zuten.

Irlanda ikusten dut favorito nagusi, sendotasun itzela erakusten ari delako, eta niri Eskoziak ezustekoa ematea gustatuko litzaidake. Hala ere, argi dago partida ikusgarriak izango ditugula.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E= F. 142.500 €**

IURRETA: Santa Maña: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 15 m²-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. **C.E.E=F 130.000 €**

AUKERA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 116.000 €**

ZALDIBAR: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. garajea. **C.E.E.=F. 157.000 €**

MATIENA: 2 logela, komuna, sukaldea handia. Igogailua. **C.E.E=F.129.000€**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

FAUSTE BIDEA: 4 logela, komuna, sukaldea, egongela. Despentsa-trastelekua. Ganbara komunitarioa. Etxe soloak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E: G. 156.000€.**

MATIENA: 3 logela, sukaldea, egongela, terraza, ganbara, igogailua. **CEE= E. 160.000 €**

BERRIZ: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela, terraza. 37,35m²-ko trasteleku- garaje zabala. **C.E.E= E. 185.000€**

KALEBARRIA: Alokairuan, erosteko aukerarekin. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **C.E.E= F. 140.000€ / 600€**

MATIENA: TRAÑAPADURA. BERRIA. Tasatuta. 2 logela, komuna, sukaldea, esekitokia, egongela, terraza, 6m²-ko ganbara. 29m²-ko garajea. Trastelekua aukeran. **C.E.E.: A. 196.000€.**

HERRIKO GUDARIEN: 107 m². Erdialdean. 3 logela, 2 komun, sukaldea. Esekitokia. Terrazadun egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Hab. 2 baños. Cocina. **C.E.E.: E**

ASK. ETORBIDEA: 119 m². 3 logela, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garaje bikoitza. **C.E.E= E. 312.000 € NEG.**

ZALDIBAR: Alokairua, erosteko aukerarekin. Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldea, egongela. Terraza. Garaje bikoitza. **C.E.E= F. 175.000€ NEG.**

SAN FRANZISKO: 3 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia. **C.E.E=E 195.000 €**

UNDATORRE: 2 etxebizitza bat eginda. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=G 185.000 €**

ABADIÑO: 150 m²-ko terraza. Erdi berria. Trastelekua eta garajea. **C.E.E=E 309.000 €**

MARTXOAREN 8'KO: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E.= E. 318.000€**

ANBOTO: 3 logela, komuna eta egongela. Eguzkitsua. **C.E.E=E. 190.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

DURANGO: Antso Eztegi. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobea.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baseri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baseri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baseri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 70 m²
3 logela
BERNARDO GABIOLA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna (berriztatua) eta despentsa. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialdea-mendebaldea Argitsua. Aparkatzeko erraztazuna. Egoera onean. ITE oraintsu pasatakoa. Inbertsioa bezala egokia.
139.000 € C.E.E: F

DURANGO 80,30 m²
3 logela
ASTEPE: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, eskegitokia eta galeria. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 6,5m²-ko trastelekua eta 10,80m²-ko garajea. Hobekuntzak behar ditu.
224.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO 86 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: (2.012 urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) Leku onena kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. 22,4 m²-ko garajea eta 8 m²-ko ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.
320.000 € C.E.E: Bidean

MATIENA 57,27 m²
2 logela
TRAÑAPADURA: Etxebizitza tasatua. Halla, egongela, sukalde jantzia, 2 logela, komuna eta galeria. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Argitsua. Leku onean kokatua. Herriguneko sarrera eta irteeratik gertu. Ganbara eta garajea. Ezin hobea. Trastelekuarekin + 5.200 €.
196.000 € C.E.E: E

MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,05 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.
254.900 €-tik aurrera

BERRIZ 98 m²
3 logela
BERRIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, jantzeko gela eta 2 komun. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Berriztatua. Igogailua jartzen daude (ordainketa eginda) Leku onean kokatua, tren geltokitik gertu. Bizitzen sartzeko moduan.
199.900 € C.E.E: G

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€ / E.E.Z= F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiargaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **145.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

OTXANDIO
ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=BIDEAN.**

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//BERRIAK

ALOKAGAI
Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

Botikak

BARIKUA, 24 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 25 · 09:00-09:00

BALENCIAGA, ZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONGO 22 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

SANTAMARIA, ERREKAKALE 6 - ELORRIO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 26 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 27 · 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 28 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 1 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 2 · 09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00


SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Maid** (925. alea)!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **Ekai**! Martxoaren 1ean 4 urte egingo dituzu. Besarkada potolo bat familiaren partez.



Gaur, otsailaren 24an, **Juleneren** urtebetzea da, 12 urte. Eta urtarrilaren 22an **Jasonek** 16 urte egin zituen. Zorionak txakurzale bikote zoragarri eta maitagarri honi, etxeko guztion partez!



Zorionak, **Iñaki**, otsailaren 23ko zure hirugarren urtebetetzeagatik! Etxeko danon partez!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ -1° / 12° ☁

ASTELEHENA ↓ 1° / 4° ☁

EGUAZTENA ↓ -1° / 7° ☁

DOMEKA ↓ 2° / 6° ☁

MARTITZENA ↓ -1° / 5° ☁

EGUENA ↓ -2° / 10° ☁

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



"Afizioa ofizio bihurtu gura nuke; gutxi gara egurra lantzen dugunak"

Josu Zenitagoiak egurrezko artisaulanak egiten ditu Tartalo izenpean. Enkarguz lan egiten du eta azokak oso aukera ona direla uste du egindako lana ezagutarazteko



Josu Zenitagoia
Arexolaleiba
Artisaua
ELORRIO | 1983

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Josu Zenitagoiak Elorrioko Gazeta auzoan du egurra lantzeko tailerra. Bertan sortzen ditu enkarguz egiten dizkieten artisaulanak. Eixu artisau elkarteako bazkide laguntzailea da.

Noiz hasi zinen egurra lantzen?

Baserrian hazitakoa naiz eta betidanik ibili naiz egur artean. Askok gustatzen zait zizela eta mailua hartu eta egurra lantzea. Lagunei oparitzeko lanak egin ditut beti, baina saltzeko lanekin 2014an hasi nintzen. Pirograbatuekin hasi nintzen, lan txiki batzuk egiten. Geroago hasi nintzen egurra lantzen.

Totemak egiten hasi zinen.

Lagun batez Argentinara joan nintzen 2015ean. Eta Hego Amerikan zehar bakarrik bidaiatu nintzen: Txilen, Perun, Ekuadorren, Bolivian, Brasilen eta Kolonbian ibili nintzen, Erdialdeko Amerikara joan aurretik. Hiru urte eta erdi egin nituen kanpoan. Bada, Montañitan (Ekuador) totemekin beteta zegoen herri bat bisitatu nuen, eta asko erakarri ninduten. Bitxiak iruditu zitzaizkidan. Handik bueltan, tailer txiki bat egokitu nuen Gazetan, eta totemak lantzen hasi nintzen. Pipak ere egiten nituen. Orduan Eixu elkartearen sartu nintzen.

Azoketan saltzen hasi zinen orduan?

Bai. Erakusleho handia dira egindako lana ezagutarazteko. Gainera,

Montañitan (Ekuador) totemekin beteta zegoen herri bat bisitatu nuen, eta asko erakarri ninduten

azoka batean Felix Larrañaga maizua ezagutu nuen.

Beragaz ikasi duzu?

Autodidakta naiz, baina Felixegaz asko ikasten nabil. Sortzen zaizki-

dan zalantza asko argitzen laguntzen dit. Izan ere, hasiberria naiz.

Zein egur mota erabiltzen duzu?

Pagoa erabiltzen dut gehien. Nafarroan erosten dut, xaflatan. Pagoarena egur ona da zizelkatzeko. Hala ere, haritz eta zedro zatiak ere baditut. Azoketan ikusita jakin dute batzuek egurra lantzen dudala, eta batzuek egurra ekarri izan didate.

Enkarguz ere lan egiten duzu. Zer da gehien eskatzen dizutena?

Denerik. Denden izena ipintzeko kartel asko egin dut (Anbotopeko, Belaze, Gorkat...) eta eguzkiloreak ere oso ondo saltzen dira. Eguzkilore asko egiten dut eta batzuetan nekosoa ere egin daiteke beti lan berdina egitea. Baina enkarguz aritzea polita da, lan bakoitza desberdina delako. Orain dela gutxi errautesak gordetzeko kutxa bat eskatu zidaten, eta botilategi bat ere bai. Txakurrak, jaguarra... egin ditut.

Autodidakta naiz, baina Felix Larrañagaz asko ikasten nabil. Sortzen zaizkidan zalantza asko argitzen laguntzen dit

Zein da egindako eskaririk bitxiena?

Ilobak dragoi bat egitea eskatu zidan, horman eskegitzeko.

Baduzu gogoan enkargu berezirik?

Kolibri bat eskatu zidaten behin. Txori bat sekula egin barik nengoen eta egurrezko hegoak alambrea erabilita ipintzea burutatu zitzaidan. Orkidea bat ere ipini nion.

Afizioa ofizio bihurtu gura duzu?

Bai, gutxi gara egurra lantzen dugunak. Apirilean Mexikora joango naiz, abenturak eta jende eta gauza berriak ezagutzeko gogoak bultzatuta. Neure burua proban ipintzeko ere bai, neurri batean. Herrialde osoan ibili gura dut eta gero AEBetara joan. Hala ere, ez dut proiektu hau baztertuko. Bidaia ikasteko ere baliatuko dut, bidaituz ere asko ikasten da eta. Ez dut bueltatzeko datarik, inoiz ez da jakiten. Baina bueltatzean proiektua sendotzea izango da erronka. Altzariak egiten ere ikasi gura dut.

Lauhortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria



Casa Paco

Goizaldeko seiak izango ziren. Argi suabe eta horixka, jazz musika urrunetik bezala, narrozko sofak, beix koloreko lanparatxoak izkintan, kafe usaina airean. Barra luzean kamioilari pare bat atsedean hartzen eta tripa betetzen, inguruko bizilagunen bat notiziak irakurriz eguna hasten, eta ni ahal zen ondoen amaitzen. Pacori galdetu nion ea zer zuten gosaltzeko, eta sukaldetik atoa erantzun zidan Marijek. Badakizu, Markel, nahi duzuna, solomoa, txorizoa, patatak, arrautzak, tortilla, hirugiharra. Izan zitekeen *Twin Peaks* edo *Fargo* telesailetan agertzen diren taberna amerikar setentero horietako bat, baina Casa Paco zen, Iurretan, errepide bazterrean. 2003an geundela uste dut. Jatekoari itxaroten nengoela, halako batean Paco hurreratu zitzaidan, diskrezioz, esateko poema batzuk idatzita zituela eta ea irakurriko nituen. Poemak? Ene ba. Beno, bai, ekarri. Bere koadernotxoan, Irakeko bonbek gauez sortzen zuten argiari buruz idatzia zuen olerki bat. Ikasketaz filosofoa, mundua konpontzen saiatzen zen barraren beste aldetik.

Nortasuna zuen Casa Pacok, berezi egiten zuen izaera bat. Pandemiaren bueltan bajatu zuen pertsiana betirako. Zuek ere ezagutuko zenituzten taberna orijinalak, anekdotak eragiten dituztenak. Igual zuek izango ziren Juliantxu, edo Txoria nuen maite. Garaiotan, mutil gazteen tupeen trazar uniformizatzen ari dira tabernak. Eskerrak baditugula oraindik hainbat txoko eder, jende jatorrarekin. Ze, gudan bezala, itxurak baino gehiago balio du barruan dagoenak.

PROFESIONALA BAZARA ETA DURANGALDEAN AHOLKULARITZA, ABOKATUTZA, ARKITEKTURA EDO BESTELAKO NEGOZIORIK BADUZU, JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTOKO GIDA BERRIAN.

Informazio gehiago 946 217 902 telefono zenbakian.

anboto